

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 187/2021 apirilaren 19koa. Arabako eskulangintza sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia onestea 2021eko ekitaldirako

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak, bere eskumenen eremuan, enplegua sortzea, prestakuntza, turismo sustapena eta merkataritza eta eskulangintza bultzatzea helburu duten ekintzak eta ekimenak gauzatzeko, hori dena Arabako Lurralde Historikoan jardura ekonomikoa pizteko.

Abenduaren 31ko 51/2013 Foru Dekretuaren bidez, Arabako eskulangintza sektorea arautu zen eta han xedatu zen dirulaguntzak eman ahalko zitzaizkiela eskulangileei edota eskulangintza enpresei euren egitura nahiz errentagarritasun, kudeaketa edo lehiakortasuneko baldintzak hobetzeko jardueretarako.

Eskulangintza sektorearen berezitasuna dela-eta, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak funtsezkotzat jo du sektoreko elkarte, autonomo eta ETEen inbertsioetarako laguntza neurriak ezartzea, beren azpiegiturak eta ekipamendua hobetu ditzaten eta, hartara, Arabako eskulangintza sektorea, oro har, lehiakorrago izan dadin.

Horretarako, 51/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikatuz eta sailaren helburuak betetzeko, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak uste du komenigarria dela Arabako eskulangintza sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia egitea une honetan. Programa hau ez da jardura bakartu bat, aitzitik ekonomia sustatzeko Arabako Lurralde Historikoaren politikaren esparruan kokatzen da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako eskulangintza sektorean inbertsioak egiteko laguntzen 2021eko ekitaldirako deialdi publikoa, zeina Foru Agindu honi atxikitzen baitzaio.

Bigarrena. Deialdi hori arautu da kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoa.

Hirugarrena. Foru agindu honek arautu dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko 30.5.02.36.02.770.00.02 partidaren kontura ordainduko dira, 15.000,00 euroz horniturik dagoela eta zorpekin erreferentzia 105.1081/000 duela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok ebaizpena eman duen organoari, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko apirilaren 19a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2021EKO EKITALDIRAKO

1. artikulua. Xedea

Deialdi honek xede du Arabako eskulangintza sektoreari inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematea, norgehiagoka prozeduraren araubidean, lantegiak eta ekipamendua berritzen laguntzeko, hartara, lehiakorrago izan daitezen eta egiturak eta kudeaketa hobetu ditzaten.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehienezko zenbateko osoa.

2.1 Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko partida honen kontura ordainduko dira: 30.5.02.36.02.770.00.02 (zorpekin erreferentzia: 105.1081/000), 15.000,00 euroz hornitua.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako zuzkidura handitu ahalko da, hasierako aurrekontuaren ehuneko 100eraino, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta geldikinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Eskulangile, eskulangintzako enpresa eta elkarte eta sektorea ordezkatzan duten gainerrako erakunde guztiak, baldin eta frogatzen badute Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela edo bertan dutela zerga egoitza eta, beranduenik 2021eko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Eskulangintza Erregistro Orokorrean izena emanda badaude, edo bestela, egun horretan hasita badute bertan alta eskatzeko prozesua, eta eskaera horri ezezkorik eman ez bazaio laguntza lerro honetara eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

3.2. Ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa egiten duten entitateak, hala xedatzen baitu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua.

3.3. Onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

Enpresen kasuan, Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badute, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izendunen bat jaso duten eskatzaileak (adjudikatzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon ala ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako bestelako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

4.1. Honako gastu hauek diruz laguntzekoak izango dira, baldin ezarritako epean egiten badira:

a) Honako hauek erostea, muntatzea eta instalatzea: jarduera egiteko beharrezkoak eta espezifikoak diren ekoizpen tresnak eta makinak eta eskulangintzako jarduerarekin lotuta dauden informatika ekipoak eta softwarea (sartuta daude, hala badagokio, garraio kostuak eta azoketan erabiltzeko olanak eta antzekoak erostea).

b) Eskulangintza jarduera modu independentean eta bereizita egiteko izango diren lantegiak eta lokalak ezarri, modernizatu, birgaitu, zaharberritu edo egokitzeko behar diren obra txikien gastua, energia aurrezteko helburuarekin lokalak egokitzearena barne. Obra txikia izango da teknikoki errazak eta eraikitze munta txikikoak direlako eta diru gutxi behar dutelako hartakotzat jo daitezkeenak, eraikin barruko banaketa aldatzen dutenak barne. Ez dira obra txiki izango erabilera aldaketa dakartenak.

Horiek horrela, diruz lagundu ahal izango dira obra mota hauek:

- Azpiegiturakoa ez den zati bat eraberritzeko obrak, trenkada aldatzea edo kentzea barne.
- Zoru, sabai, horma, igeltsua, xaflatua konpontzeko, zaharberritzeko, aldatzeko edo ordezkatzeko lanak.
- Hoditeria, elektrizitatea, berotze sistema, saneamendua eta beste batzuk instalatzea eta gainerako estalkiak.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea helburu duten obrak.

Ez dira inolaz ere diruz lagunduko norberaren etxebizitza hobetzeko diren eta eskulangintza jarduera gauzatzeko baldintzak hobetzeko ez diren obrak. Obrek bi eremu horiei eragiten dietenean, diruz lagungarri izango da lantegirako soilik izango den eraikuntzen eta inbertsioen zati proportzionala, baldin lotura zuzena eta agerikoa badute eskulangintza ogibidea gauzatzearekin.

Diruz lagungarri izango dira, orobat, proiektu teknikoaren idazketa eta obra zuzendaritza.

Betiere jarduketa behar adina justifikatuko da eta beharrezkoa izango da. Era berean, bat etorri beharko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, eskatzailearen eskulangintza jarduera gauzatzearekin.

Gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, besteak beste, kasu hauetakoren bati badagokie:

- Kanpo garraioaren elementuak.
- Bulegoko altzariak.
- Bigarren eskuko ekipoak edo makinak eskuratzea.
- Produktua egiteko erabiltzen diren ondasun suntsikorak, lehengaiak edo gastuak.
- Edozein eratako zergak, lizentziak eta tributuoak.
- Lokala edo lantegia erosteko inbertsioak.
- Finantza gastuak.
- Obra handiak, hala nola, oin berriko obrak edo dauden eraikinen azalera, bolumena edo garaiera areagotzen dutenak edo haiek osorik, eta ez zati batean, birgaitzen dutenak.
- Aldizkako gastuak eta/edo errepikatzen direnak nahiz kuota mota oro.

- Materialen gastuak lokala egokitzeko.
- BEZa eta gainerako zeharkako zergak, salbu onuradunak konpentsatu edo berreskuratu ezin baditzake.
- Pertsona edo entitate eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bitartez egindako gastuak.
- Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe lotu ezin diren edota deialdi bakoitzean ezarritako epean egiten ez diren gastuak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak uste badu gastuen aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen batez besteko kostuaren aldean, diruz lagundu daitekeen oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

4.2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.3. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz eskulangintza sektoreko lantegiak eta ekipamendua berritzen nahikorik laguntzen ez duten jardunak badaude, baztertu egin daitezke adjudikatu beharreko dirulaguntzaren kalkularen ondorioetarako.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetako onuradunek Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren emaitzak.

Diruz lagungarriak izango dira:

- 2021. urtean hasitako inbertsio proiektuetatik, 2021eko azaroaren 26ra arte gauzatzen direnak (egun hori barne).
- 2020ko azken hiruhilekoan hasitako inbertsio proiektuetatik, 2021eko azaroaren 26ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne, baldin eta ez badira diruz lagundu eskulangintza sektore-rako aurreko deialdietan.

Horren ondorioetarako, fakturazio eguna izango da proiektuaren gauzatze eguna eta gastua egin den eguna.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Inbertsioari dagokionez, 4.1.a) artikulurako gutxienerako inbertsioa 200,00 euro (zerga oinarria) izango da, eta b) apartaturako, berriz, 1.000,00 euro (zerga oinarria).

6.2. Gehieneko zenbateko eta ehuneko hauen arabera ezarriko da dirulaguntza:

- 4.1.a) apartatuan ezarritako inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80ko dirulaguntza emango da; gehienez ere 3.000,00 euro, onuradun bakoitzeko.
- 4.1.b) apartatuan ezarritako inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 40ko dirulaguntza emango da; gehienez ere 4.000,00 euro, onuradun bakoitzeko.

6.3. Interes eta/edo eragin ekonomiko bereziko kasuetan, ordea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak muga horiek gainditzea proposatu ahal izango du. Muga horiek beheratu ere egin ahal izango ditu balorazio batzordeak, desoreka nabarmena baldin badago aurrekontuko baliabideen eta aurkeztutako proiektuen kopuruaren eta kalitatearen artean.

6.4. Eskatzailea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuen onuradun izan bada, programa honen kontura onetsi diren antzeko proiektuetan, dirulaguntzaren oinarria doituko da araudi honetan ezarritako gehieneko mugak ez gainditzeko.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio batzordea honela osatuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1 Eskaerak hemen aurkeztuko dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Foru Ogasunak Gasteizen, Guardian eta Laudion dituen bulegoen erregistroan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan jasotzen dituen erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki aurkeztu beharrekoa, berariazko izapidearen bidez, egoitza elektronikora jota, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargo bateko kide izatea eskatzen duen jarduera profesionalean dihardutenek eta jarduera hori gauzatzean egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.

AFAREN egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoa identifikatzea, ziurtagiri elektroniko baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

8.2. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau indarrean sartzen denean, eta 2021eko maiatzaren 14an amaituko da, 14:00etan.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

1. NANaren fotokopia.

2. IFZren fotokopia, eskulangintza enpresen eta elkarten eta sektorea ordezkatzeko duten gainerako erakundearen kasuan.

3. Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiria, harekiko betebeharrak betetzen egunean dagoela frogatzeko. Ziurtagiri horren ordezkari aurkeztu ahal izango da organo kudeatzaileari emandako berariazko baimena, datuak emateko eskumena duten administrazioetatik datu horiek zuzenean jasotzeko.

4. Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen ziurtagiria.

5. Eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak deskribatzeko memoria. Bertan datu hauek jarriko dira, besteak beste:

- Egin beharreko inbertsioen azalpena eta zenbatekoa.

- Inbertsio horiek egiteko arrazoiak eta inbertsio horiek ekoizpen prozesuan zertarako erabiliko diren.

6. Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformakoak edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, sinatu den kontratua). Dirulaguntzak kalkulatzeko, ez dira aurrekontutzat onartuko eskatzaileak egindako gastu kalkulak.

7. Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzatzen hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

8.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneren Zuzendaritzako laguntza eskabidearen eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.5 Dirulaguntza eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoeraren ziurtagiriak lortzeko.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

9.1. Foru Agindu honetan aurreikusitako laguntzak norgehiagoka araubidean izapidetuko dira, eta honako lehentasun ordena hau ezarriko da, 4.1. artikuluan ezarritako jarduketa lerroen arabera:

1º. 1. Lehenbizi, 4.1. a) apartatuan ezarritako inbertsioei dagozkien gastuak ordainduko dira, eta inbertsio horiek lehentasunaren arabera ordenatuko dira, hurrengo apartatuan ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta.

2º. 2. Halaber, 4.1.a) apartatuan jasotako inbertsioak finantzatzeko behar guztiak bete ondoren, eta orduan baino ez, baldin aurrekontu krediturik sobera badago, 4.1.b) apartatuan ezarritako inbertsioei dagozkien gastuak ordainduko dira. Inbertsio horiek ere lehentasunaren arabera ordenatuko dira, hurrengo idatz zatian ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta.

9.2. Irizpide objektibo hauek erabiliko dira, azkenean onartzen diren eskaeretatik dirulaguntza nori emango zaion erabakitzeko:

1) Enpresaren lehiakortasuna hobetzea.

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako emaitza hauek ahalbidetzen dituzten jarduketak: produktuaren berrikuntza, produktua desberdintzea, kalitatea areagotzea eta enpresaren kudeaketan eta IKTen erabileran hobekuntzak egitea.

2) Justifikatutako ehuneko (zenbateko onartua), eskatzailea onuradun gertatu zen laguntza lerro honen azken deialdian adjudikatu zen zenbatekoari dagokionez.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Ehuneko 90 edo gehiagoko justifikazioa, 30 puntu.
- Ehuneko 60 edo gehiagoko eta ehuneko 90etik beherako justifikazioa, 15 puntu.
- Hirugarrena laguntza lerro honen onuradun gertatzen den lehen aldia, 15 puntu.
- Ehuneko 60tik beherako justifikazioa, 0 puntu.

3) Laguntza eskaeraren xede diren ekintzak azaltzeko memoriaren nahiz eskaeraren beraren argitasuna, xehetasuna eta askitasuna eta bertan eta lehen unetik hura aztertzeko behar den dokumentazio osoa sartzea.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Eskaera osatua, xehetasun memoriarekin batera, 30 puntu.
- Eskaera, hasiera batean osagabea baina beharrezko agiriak aurkezteko egiten zaion lehen errekerimenduaren lehen ekitaldian osatua, xehetasun memoriarekin batera, 20 puntu.

- Eskatera osatua, xehetasun urriko memoriarekin batera, 20 puntu.
 - Eskatera, hasiera batean osagabea baina osorik betetzeko agiriak aurkezteko errekerimendu bat baino gehiago behar izana duena, xehetasun memoriarekin batera, 10 puntu.
 - Eskatera, hasiera batean osagabea, xehetasun urriko memoriarekin batera, 0 puntu.
- 4) Proiektuaren eraginaren gradua.

Irizpide hau baloratzeko, kontuan hartuko dira proiektuari lotutako lanaldi osoko lanpostuak sortu diren eta fakturazioaren gehikuntza.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 30 puntu arte.
- 2. irizpidea: 30 puntu arte.
- 3. irizpidea: 30 puntu arte.
- 4. irizpidea: 10 puntu arte.

9.3. Onuradunak nortzuk diren zehazteko eta hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

10.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.2. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

10.3. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

11.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeinak interesdunaren esku egongo baitira, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute eskatuz gero.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

11.3. Arabako Foru Aldundiak onartu ahal izateko dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2021eko azaroaren 26a baino lehen (egun hori barne):

- Egindako jarduketan/inbertsioen memoria.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

– Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek jaso behar ditu: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, ordainduta badago.

– Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak.

– Baldin eta gastuak kontratu txikien zenbatekora (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) heltzen badira eta kopuru horiez gaindikoak badira, hautapenaren justifikazioarekin batera, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, eta gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago bada.

Ez dira dirulaguntza ordaintzeko aurkeztutako justifikazio fakturatzat hartuko eskabideari erantsi zaizkionak. Onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu faktura horiek, aurrez zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua.

Profesionalek emandako fakturei dagokienez, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren arduraz izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazioaren txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada dagozkion atxikipenak ez direla ordaindu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

11.4. Onuradunak 2021eko martxoaren 31 (barne) baino lehen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturak ordaindu izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua. Zenbateko hori onartutako dirulaguntzaren oinarriaren parekoa edo gehiago izango da, eta formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, datu hauek zehazten dituenak: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta edo zigilua jarrita, datu hauek zehaztuta: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen ordainagiriak edo tiketak, bidezko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo haren kontrabaliao atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

11.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Hasieran onetsitako aurrekontu diruz lagungarriaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko nahiz hura kobartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko da erregistro elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

11.10. 6.2 paragrafoan ezarritako dirulaguntza mugetako edozein aplikatu bada, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak txostena alde aurretik txostena egin ondoren, diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrekoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

11.11. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztutako dokumentazioa osorik bete ez bada edo guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri Orokorrek onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen beste laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira Foru Agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

13. artikulua. Eskaerak egokitzea

Foru Agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritiz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahalko dira ofizioz.

14. artikulua. Azken klausula

Foru Agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.